

33. atala: Taldeka

Tasioren egunkari ezkutua

33.1- Entzun audioa 1:51 minutura arte. Une horretan Kevin logelara itzultzen da Tasioren egunerokoa irakurtzera, eta pasarte bat berari buruzkoa dela konturatzen da. Zer uste duzu esango duela Tasiok Kevin buruz? Aukeratu hipotesi bat:

- a) Ni zirikatzen dabil beti eta bi planeta ezberdinetakoak garela dirudi. Baina, egia esan, ez dut irudikatzen inor hobeagorik honelako espedizio zail eta bakarti batean nire alboan egoteko.
- b) Ni zirikatzen dabil beti eta planeta ezberdinetakoak garela dirudi. Egia esan, ez naiz batere ongi sentitzen berarekin, eta esan egingo diot ea jarrera aldatzen duen...

Bikoteka jarrita, aukeratutakoaren arabera, esan zein izan daitekeen entzungaiaren amaiera.

Adibidez: Nire ustez, bigarren hipotesian dioena gertatuko da. Eztabaida bizia izango dute bion artean, baina azkenean adiskidetu egingo dira.



33.2.- Bikoteka, erantzun galderai:

- Zenbat koaderno ditu Sarasolak?
- Zergatik ezin da bere tokitik mugitu?
- Zer pentsatzen du Tasiok Kevin buruz?
- Kevin nola sentitu da Sarasolarekin?

33. atala: Taldeka

33.3.- El Conquis saiora aurkezteko parte hartzaileek izan beharreko perfilaz aritu zineten 30. atalean, eta ezaugarriak ordenatzeko eskatu zitzaizuen. Honakoak:

- | | |
|----------------------------------|-----------------------|
| 1. Kirolaria izatea. | 6. Solidarioa izatea. |
| 2. Harremanetan iaioa izatea. | 7. Lehiakorra izatea. |
| 3. Sufritzen jakitea. | 8. Gizena ez egotea. |
| 4. Eztabaidatzen jakitea. | 9. Atsegina izatea. |
| 5. Talde-dinamikan abila izatea. | 10. Ausarta izatea. |



- Jarri bi talde handitan eta adostu denon artean ezaugarri horien ordena.
- Talde bakoitzean proposatu El Conquis programara bidaltzeko gelako hautagairik egokiena, eta arrazoitu. Azkenean, bik joan behar dute.



33. atala: Taldeka

Transkripzioa (03:05)

T- Johnson! Johnson!

K- Zer?

T- Aizak, fabore bat egingo al didak?

K- Ze klasetakoa?

T- Esperimentu baten erdian nagok eta ezin nauk hemendik mugitu ordu erdiz gutxienez.

K- Esan, zer behar duzu?

T- Nire lan-koaderno ahaztu egin diat ohe alboko mahai txikian, e? tapa urdina duen hori. Ekarriko al didak, mesedez?

K- Baaaleeee!

K- Ea, koaderno urdina, koaderno urdina... hementxe!.Eta azal gorria duen koaderno hau? Hara, eskuz idatzia dago!

2056. urteko irailak 17. Trebiñu II espazio estazioa gure zain dago. Bizitza osoa amestu dut honekin. Zalantza bat dut, ordea. Ametsak betetzen direnean zer geratzen zaigu?

K- Sarasolak diario bat idazten du koaderno honetan. Eta eskuz idazten du gainera.Ea hemen aurrerago zer jartzen duen...

2056. Urtea, urriak 2: "Hemendik, lura planetak jatetxe txinatarretan egoten diren lainoz babestutako paisaia-koadro argiztatu bat dirudi".

T- Johnson! Ez al duk topatzen, edo zer?

K- Bai, banoa!

T.- Tapa urdineko koaderno!

T- Mila esker.

K- Zenbat denbora geratzen zaio zure esperimentu horri?

T- 10 bat minutu-edo.

K- Bale, nik bitartean gauzak apur bat txukunduko ditut logela inguruan.

"Gauetan hotza sentitzen dut. Baina ez da hotz fisikoa. Ariman sentitzen dut hotza, besoa luzatu eta zu ez zaudelako hor, Antxon"... kar, kar, kar. Ea, aber aurrerago...

"2056. urteko urriak 25. Esnea baino zuriagoa bada ere, Johnson-ek beltza dela esaten du behin eta berriro. Ni zirikatzen dabil beti eta bi planeta ezberdinetakoak garela dirudi. Baina, egia esan, ez dut irudikatzen inor hobeagorik honelako espedizio zail eta bakarti batean nire alboan egoteko".

K- Tasio?

T- Zer?

K- Aizu, zuk oraindik eskuz idazten badakizu, ezta?

T- Bai.

K- Bada, nik ja ia ahaztua daukat, baina pena ematen dit eskuz idazten hobeto ikasi ez izanak.

T- Eta zergatik esaten didak hau orain.

K- Bada, ezer bereziagatik ez, esperimentuetako notatxoak eskuz idazten ikusten zaitudanez, bada...

K- Tasio...

T- Zeeeee?

K- Ez dizut esan oraindik, baina ni oso gustura nago zurekin espedizio honetan.

T- Bale, bale.

K- A, eta sinisten ez didazun arren, ni beltza naiz.

Erantzunak

33.2.-

- Bi ditu: bat tapa urdinekoa eta bestea gorrikoa.
- Esperimentu baten erdian dagoelako.
- Beti zirikatzen ari dela, baina espedizio zail eta bakarti horretarako ezin aproposagoa dela.
- Irakurri duenak ezustean harrapatu du, eta gustatu egin zaio. Berak ere estimatzen duela adierazi nahi dio.